



1. JARDUNBIDEA: Score/Partitura

(GONBIDAPENA / INVITACIÓN Egonaldiaren hasieran garatua_2019ko azaroak)

Kolektiboko parte-hartzaile bakoitza gonbidatu zen gainerako parte-hartzaileentzat partitura bat sortzera ondorengo irizpideak jarraituz:

- a) partiturek proiektu, ikerketa-prozesu, pieza, jardunbide artistiko (edo ez artistiko) bat gogora ekartzea edo horietatik jaiotzea, zeinen partaide parte-hartzaileak diren
- b) Proposatutako Score/Partitura jardunbide apur bat izanda ere behar bezain irekia izan behar zela zenbait zabalkunde eratorri ahal izateko, proposatzailearen desirez eta materializazioez haraindi.

Score #1 | REMAKE

Hautzaroaren performance bat

- Gogoratu hautzaroko jolas gustukoena, edo esanguratsuena, edo etengabe burutzen zenuen aisialdiko ekintzaren bat.
- Antzeman egite, ekintza, objektu, abesti, pertsona, harreman horien elementu esanguratsuena edo esanguratsuenak.
- Begiratu itzazu usterik gabe.
- Saiatu objektu, abesti, keinu,... Horiek aurkitzen. Egizu berriz.
- Egin joko/performance horren remake bat.

WIKIRIKI 2019-2020 #wikitokiegonaldiak GONBIDAPENA / INVITACIÓN

Score #2 | ZUHAITZ BATEN LAGUN EGITEA

Score hau burutzeko zenbait egun behar dira. Nire proposamena zera da burutzeko 5 egun jarraian hartzea.

- Zuhaitz bat hautatzea, zeinaren lagun egin nahi duzun. Zure kalean, basoan, lorategiren batean dagoen zuhaitza izan daiteke. Hautatzeko orduan, garrantzitsua da zu ere hautatzen zaituena zein den entzutea. Ziur aspalditik maite-jokoetan zabiltzala zuhaitz batekin eta zuhaitz bat zurekin.
- Behin zuhaitza hautatuta, gorde ordubete egunean 5 egun jarraietan zehar berarekin egoteko. Ez dago zertan beti ordu bera izan, baina bai egunero joatea.
- Bisitatzen duzun egun bakoitzean eramaiozu edo egiozu zerbait. Adibidez, egun batean bera ukitzera joan zaitezke edo Beste egun batean zerbait irakurtzera joan zaitezke, berak entzun dezan. Egunen batean zuhaitza entzutera, gertutik begiratzera,... joan zaitezke.
- Egunak igaro ahala bien artean ezartzen den harremana ulertuko duzu. Zure lagun berriarekin entzun, fidatu, denbora igaro.
- Egun bakoitza amaitzean, zuen topaketa erregistratu nahien duzun moduan. Egunak amaitzean, miniegunkari bat izango duzu.